

BIRIBILKO 2011-2012 IKASTAROEN EBALUAZIOA

Jarraian, Biribilko 2011-2012 ikastaroetan parte hartu duten merkatariak egindako balorazioaren ikuspegi sistematizatua eskaintzen dugu.

1.- Ikastaroen ezaugarriak eta matrikulazioari buruzko datu orokorrak

1. ESKAINITAKO IKASTAROAK

A. EUSKARA KOMERTZIALEKO OINARRIZKO IKASTAROA

Hartzaileak	Euskara ez dakiten (edo oso gutxi dakiten) Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.	
Helburua	Ahozko oinarrizko komunikazioa lantzea, merkataritzako egoera arruntetarako hizkuntza-oinarriak ematea.	
Iraupena	87 ordu.	
Ordaindu beharreko matrikularen prezioa	87,00 € Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.	
DATAK Bi aukeretako bat hautatu	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean 2 egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2012-10-8 Amaiera: 2013-5-22	Astelehen eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:15 -9:45
		2. Eguerdiz: 14:15 -15:45
2. Aukera: Hasiera: 2012-10-9 Amaiera: 2013-5-30	Astearte eta Ostegunak	1. Goizez: 8:15 - 9:45
		2. Eguerdiz: 14:15 - 15:45

B. EUSKARA KOMERTZIALA HOBETZEKO IKASTAROA

Hartzaileak	Euskara zerbait hitz egiten dakiten Bilboko establezimenduetako merkatari edota enplegatuak.	
Helburua	Merkataritza arloko ahozko eta idatzizko euskara maila hobetzea.	
Iraupena	100 ordu.	
Ordaindu beharreko matrikularen prezioa	100,00 € Euskaltegietan adieraziko dizute nola ordaindu behar duzun matrikula.	
DATAK Bi aukeretako bat hautatu	ASTEKO KLASE-EGUNAK Astean 2 egun	KLASE-ORDUTEGIAK Aukeratzeko: goizez ala eguerdiz
1. Aukera: Hasiera: 2012-10-8 Amaiera: 2013-6- 24	Astelehen eta Asteazkenak	1. Goizez: 8:00-9:30
		2. Eguerdiz: 14:15- 15:45
2. Aukera: Hasiera: 2012-10-9 Amaiera: 2013-6-27	Astearte eta Ostegunak	1. Goizez: 8:00-9:30
		2. Eguerdiz: 14:15-15:45

2. BIRIBILKO IKASTAROETAN MATRIKULATZEKO INFORMAZIOA

Matrikulatzeko epea	2012ko irailaren 12tik 28ra arte.
Matrikula egiteko eta klaseak hartzeko lekua	<p>Matrikulatzeko interesa duten pertsonak ondoren aipatzen den euskaltegiren batera joan behar dute. Klaseak ere bertan emango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Bilbo Zaharra, Posta Kalea, 8. (Tfonia: 94 4158292) Indautxu AEK. Urkixo Zumarkalea, 88 (Tfonia: 94 4413474) Juan Mateo Zabala, Gordoniz Kalea, 22 (Tfonia: 94 4221388) Matxintxu AEK, Ramón y Cajal Etorbidea, 8 (Tfonia: 94 4752233) Lizardi AEK, Txakur Kalea, 1 (Tfonia: 94 4168200)

I. Taula: Biribilko 2011-2012 ikastaroen matrikulazioari buruzko datu nagusiak

		Kop.	%
Ikastaro mota	Euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa (87 ordukoa) ...	92	81,4
	Euskara komertziala hobetzeko ikastaroa (100 ordukoa)	21	18,6
Klase egunak	Astelehen eta asteazkeneak	27	23,9
	Astearte eta ostegunak	86	76,1
Klaseen ordutegia	Goizez: 8:15-9:45	15	13,3
	Eguerdiz: 14:15-15:45	98	86,7
GUZTIRA		113	100,0

Iturria: Siadeco, 2011


2011-2012 ikasturtean, denetara 113 izan dira Biribilko ikastaroetan matrikulatu diren merkatariak. Aurreko ikasturteetako joera mantenduz, horietatik gehienak euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroetan matrikulatu dira (10etik 8). Guztira, 9 ikasle talde osatu dira: 7oinarrizko ikastaroan eta 2 hobetzekoan.

10 ikasletik ia 8k astearte eta ostegunetan aukeratu du klaseetara joatea eta 2k astelehen eta asteazkenetan.

Ikasleen gehiengo oso nabarmena (%87) eguerdiko ordutegian (14:15etatik 15:45etara) joan da klaseetara eta %13 inguru goizekoan (8:15etatik 9:45etara).

2.- Ikasleen ezaugarri soziodemografikoak


1. Grafikoa: Biribilko euskara ikasleak sexuaren arabera - bilakaera (%)



Iturria: Siadeco, 2012.

Euskara ikastaroetan parte hartu duten Bilboko merkatarien artean gehienak emakumezkoak izan dira, hamarretik ia zortzi (% 77,9) hain zuzen ere

Datuok aurreko urtekoekin alderatuz, aipatu sexuari dagokionez joera bera errepikatzen dela, aurten matrikulatutako gizonaen ehunekoak apurtxo bat gora egin badu ere.



Iturria: Siadeco, 2012.

Adinari jarraiki, merkatari horien batez besteko adina 42 urtekoa da, gizonaen artean ia lau urte altuagoa (45,6 urte) emakumezkoetan baino (41,9 urte). Edonola ere matrikulatutako hamar ikasletatik lauk 31-40 urte bitartean dituzte, hiruk 41-50 urte bitartean, eta bik 51 urte edo gehiago. 30 urtez beherakoak ez dira %5era iristen. Beraz, adin tarte zabaleko euskara ikasleez osatutako taldeak izan arren, 31-50 urte artekoak nagusitzen dira.

Datuok aurreko urteetakoekin alderatuz gero, argi ikusten da behera egin duela nabarmen 30 urtetik beherako pisua, eta gora aldiz gainerako hiru adin-tarteetakoena.

3.- Ikasleek lan egiten duten merkataritza establezimenduaren jarduera-adarra eta kokatuta dagoen auzunea


2. Taula: Ikasleek lan egiten duten establezimendua jarduera adarraren arabera, ikastaro motari jarraiki¹

Jarduera adarra	Ikastaro mota				GUZTIRA	
	Oinarrizko ikastaroa		Hobetzeko ikastaroa			
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Elikagai freskoak	8	9,4	1	5,6	9	8,7
Autozerbitzua/supermerkatua	5	5,9	0	0,0	5	4,9
Drogeria, lurrin-denda, farmazia produktuak	6	7,1	2	11,1	8	7,8
Jantziak eta oinetakoak	15	17,6	4	22,2	19	18,4
IKT ekipoak	1	1,2	1	5,6	2	1,9
Altzariak eta etxeko artikulua	10	11,8	2	11,1	12	11,7
Kultur eta aisialdirako artikulua	6	7,1	2	11,1	8	7,8
Bestelako produktuak	17	20,0	3	16,7	20	19,4
Zerbitzuak	17	20,0	3	16,7	20	19,4
GUZTIRA	85	100,0	18	100,0	103	100,0

Iturria: Siadeco, 2012

Hamar euskara ikasleetatik 2 inguruk "bestelako produktuak" eskaintzen dituen denda batean egiten dute lan (optika, estankoa, natur/belardenda, bitxi-denda, gozoki-denda, e.a...) (%19,4); beste 2k bestelako zerbitzu-establezimendu batean (ileapaindegi/estetika zentroa, bidai-agentzia, aholkularitza, aseguru etxea, instalatzaileak, etab.) eta ia beste 2k jantzi eta oinetako denda batean (%18,4). Hamarretik batek altzari eta etxeko artikuluetako denda batean (%11,7), eta gainerako jarduera adarren pisua baxuagoa da.

Bilakaerari dagokionez, aurten gora egin du zerbitzuetako langileen pisuak, eta erabat desagertu dira aldiz, bai erostetxe handiko langileak, bai elikagai lehorretakoak. Behera egin dute ere IKT ekipoak saltzen dituzten establezimenduetakoak.




Iturria: Siadeco, 2012

Hamar ikasletik ia bik Zazpi Kaleetan kokaturiko establezimendu batean egiten dute lan, 20 pertsona guztira; Indautxun kokaturiko establezimendu batean lan egiten dute ikasleen %15,4k (16 pertsona) eta zertxobait gutxiagok Abandon (%12,5- 13 pertsona). Santutxun egiten dute lan ikasleen ia %10ak, eta gainerako auzoetan lan egiten dutenak gutxixeago dira.

lazko datuekin alderatuta, hazi egin da zertxobait Zazpi Kaleetako merkatarien pisua (1,8 puntu gehiago) eta jaitsi egin da Abandokoan eta Indautxukoan pisuak (5,5 eta 9 puntuko jaitsierra hurrenez hurren). Santutxukoan pisua igo eginda apurtxo bat (1,5 puntu) eta Deustukoena osteraz zerbait jaitsi da (2,5 puntu).

4.- Euskara ikastaroetan matrikulatzeko motibazioa



Iturria: Siadeco, 2012


Euskara ikastaro hauetan matrikulatzeko arrazoi nagusiaz galdetuta, multzorik handienak euskara ikasteko edo euskara ikasten jarraitzeko gogoak bultzatuta eman zuela izena erantzun du (euskara zein esparrutan erabiltzeko nahi duten zehaztu gabe). Horien artean daude, bai, "euskara ikastea" besterik erantzun ez dutenak (%20,2) (aurretik gutxieneko mailarik baduten ala ez zehazten ez dutenak), eta "ikasten jarraitzea, berreskuratzea, ez ahaztea" erantzuten dutenak (%22,1).

Ikasle multzo bat ere bada, (%8,7) ikastaroen ezaugarriak animatuta matrikulatu zela dioena (ordutegia, erritmoa, etab.)

Aurreko datuok erakusten dute beraz, esplizituki, euskara ikasteko arrazoi nagusi gisa interes profesionala (soilik edo pertsonalekin batera) aipatu dutenak %32,7aren inguruan kokatzen direla.

5.- Euskara ikastaro ez egindako balorazioa

5. Grafikoa: Ikastaroaren alderdi desberdinen inguruan ikasleek egindako batez besteko balorazioa, ikastaro motaren arabera (0tik 10erako eskalan)



Euskara ikasleek ikastaroaren alderdi desberdinei emandako batez besteko puntuaketa ona dela esan behar da. Batez besteko orokorra, 8,42koa da, eta alderdi guztiak 9,19 eta 7,04 artean kokatzen dira.


Oinarrizko ikastaroetako ikasleen batez besteko orokorra zertxobait altuagoa da batez besteko orokorra baino (8,53), eta hobekuntza ikastaroetako aldiz, baxuagoa (7,96).

Ikasleen artean puntuaketa altuena lortzen duten 3 alderdiak, (9 puntutik gora, hain zuzen ere), ikasle taldea, irakasleak eta euskaltegiaren kokapena dira. Horien ondoren, 8,5eko puntuaketa inguruan kokatzen dira beste hiru alderdi hauek: ordutegia, irakaskuntza sistema eta prezioa. Apur bat beherago, 8,2ko puntuaketa inguruan, irakatsitako edukiak, datak, matrikulatzeko prozedura eta erabilitako materiala. Zertxobait beherago (8 punturen inguruan), iraupena (ikasturtea ekaina amaiera arte luzatzeko eskabidea jaso izan da). Eta azkenik, baloraziorik baxuena jaso duen alderdia (hala ere, 7 puntu inguru lortu ditu), klasearen homogeneotasuna.

Ikasturte honetako ikasleek egindako balorazio orokorra iazko ikasleek egindakoa baino hobexeagoa da: aurten alderdi desberdinen batez besteko puntuazio orokorra 8,4koa izan da eta iaz 8,1koa izan zen. Izan ere, baloratu diren alderdi desberdinei, 2011-2012 ikasturteko ikasleek, oro har, puntuazio altuxeago eman diete aurreko ikasturteko ikasleek baino.

Aipatzekoa da parte hartu duten euskaltegietako irakasleek gehien baloratzen dutena ikasleen interesa eta klaseko parte hartzea dela (9,1 puntu). Aldiz, irakasleen baloraziorik baxuena jasotzen duen alderdia, klasearen homogeneousuna da (5,1 puntu), ikasleen artean gertatzen den bezalaxe.


6.- Ezagutzan pertzibitutako aurrerapenak, ahoz eta idatziz



Bi ikastaro motetan parte hartu duten ikasleek aurrerapen adierazgarria igarri dute euren ahozko nahiz idatzizko euskararen ezagupen mailan ikastaroak amaitu ostean:

- Oinarrizko nahiz hobetzeko ikastaroetako ikasleek, euskaraz idatziz duten ezagutza maila, ahozkoa baino altuagoa dela sentitzen dutela (ikastaroa hasi aurretik nahiz amaitu ondoren).
- Hobekuntza ikastaroetara joandakoen abiapuntua altuagoa izan arren, oinarrizko ikastaroko ikasleek pertzibitutako aurrerapena handiagoa da hobekuntzakoek pertzibitutakoa baino.

7.- Euskara ikasten jarraitzeko interesa eta aholkatze-maila beste merkatariek ikastaroetan parte har dezaten



Biribilko egitasmoaren barruan antolatutako beste euskara ikastaro batean matrikulatzeko batez besteko interes maila altua da, Otik 10erako eskala baten 8,9koa oro har, eta ia ez dago desberdintasunik oinarrizko ikastaroa egin dutenen eta hobekuntzakoa egin dutenen artean.

Datorren ikasturtean beste ikastaro batean matrikulatzeko azaldutako interes maila orokorra, orain bi ikasturte azaldutakoaren mailara iritsi da (8,8koa izan zen), eta beraz, iazkoa baino altuagoa da (7,9koa izan zen).

Aurrera begira berriz, euskara ikastaro horietara joan daitezten beste merkatariek aholkatuko lituzketela garbi erakusten dute datuek; izan ere Otik 10era doan eskalan, 8,6 puntukoa da (nahikoa altua) aholkatze-maila.

Irakasleek ere, interes handia erakusten dute datorren ikasturtean euskara ikastaro hauek ematen jarraitzeko (8,7 puntu).